

## Iosu Uribetxeberriaren heriotzaren aurrean

---

AMNISTIA TA ASKATASUNA :: 17/01/2015

Ante la muerte de Iosu Uribetxeberria

**IOSU URIBETXEBERRIA**ren heriotzaren aurrean, Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak zera adierazi nahi du:

Lehenik eta behin gure doluminak eta besarkadarik beroena helarazi nahi diegu bere senide eta hurkoei.

Bigarrenik, gure mina eta amorrua adierazi nahi dugu galdu dugun burkideagatik. Ez dugu ahazten etsaiak bere atxiloketatik azken unera arte lintxatu egin duela **IOSU**: torturatu egin zuten, espetxe politika hiltzailea aplikatu zioten, gaixorik egon arren preso mantendu zuten eta kaleratu eta gero berriz atxilotu eta kartzelaratu eurentzat arazo bihur litekeela pentsatu zuten arte... Eta etxean egonda ere AVT eta gisako faxistek lintxamentu mediatikoarekin jarraitu zuten.

Hirugarrenik, gure harrotasuna adierazi nahi dugu **IOSU** bezalako militante eredugarria eta pertsona osoa bidelagun izan dugulako. Eraso guztien aurrean **IOSU** ausardia eta duintasun eredua izan da eta izango da aurrerantzean ere.

Lekzio handia eman die estatu terroristei, sasi guztien gainetik borrokan tinko mantenduz, bizitza makurtuta ez igarotzeko bezain ederra dela erakutsiz. Horregatik gure omenaldirik onena jo ta ke Euskal Herriaren **ASKATASUNA** irabazi arte jarraitzea izango da. **IOSU**ri eta eroritako gudari guztiei hori eta gehiago zor diegu.

**IOSU**ren heriotzaren aurrean ezin dugu gaixo dauden preso politikoen egoera ahaztu. Ez dugu **IOSU**k gai honekiko bizi izan duen egoera beste inorekin errepikatzea nahi, horregatik preso gaixo guztien berehalako **ASKATASUNA** exijitzen dugu.

Bukatzeko errepikatu nahi dugu horrelako egoerak berriro errepikatu ez daitezen bermatuko diguna **AMNISTIA**ren gauzatzea izango dela. Hori da gatzka bukatzeko eta benetako bakea eta ez zapaltzailearen bakea lortzeko bide bakarra, **IOSU**k argitutako bidetik adorez lan eginez. Borroka da bide bakarra!

**AGUR ETA OHORE, IOSU!**

---

<https://eh.lahaine.org/iosu-uribetxeberriaren-heriotzaren-aurrean>